


# Erbia eta lehoia



Mota guzietako animaliak baziren oihan hartan. Baina animalietarik gaixtoena lehoia zen.

Bera oihan hartako nagusia zen. Batzuetan oihaneko animalia guziak elkartzen ziren. Orduan lehoia denen artera agertzen zen eta... kris-krask! animalia bat edo beste jaten zuen.

5

Halako batean, oihaneko animaliak bildu ziren eta lehoiari erran zioten:

– Errazu! Denak bildu gara eta hau erabaki dugu: hemendik aitzina, egun bakoitz oihaneko animalia bat jaten ahalko duzu baina kasu! bakar bat eta ez gehiago. Ulertu duzuia?

10

– Baietz! – erantzun zuen lehoiak.



Egun batez lehoiak erbia ikusi zuen.

– Egun on, erbia! Egun, zu zaitut jan behar.

15 Erbia oso abila zen eta pentsatu zuen: "Zerbait egin behar dut lehoia oihan honetatik urruntzeko, bestela sekula ez gara bakean biziko."

– Barkatu, lehoia ene nagusia – erantzun zuen erbiak – baina bidean beste lehoi bat ikusi dut; ahoan ene lehengusu erbia eramaiten zuen.

20 – Non da beste lehoi hori? – galdegin zuen lehoiak **arrunt** kexaturik.

– Erakutsiko dizut non gordetzen den. Segi nazazu eta ikusiko duzu.

25 Elkarrekin joan ziren harpe zilo baten ondora; harpe ziloaren aitzinean, ur putzu handi bat bazegoen.

– Harpe zilo honen barnean egoiten da lehoia. Baina bakarrik ez dut sartu nahi, beldur naiz.

Ahotik zilintzan har nazazu eta eramán.

30 Lehoiak erbiak manatu bezala egin zuen eta putzuaren ondoan gelditu zen, erbia bere ahoan dilingo. Orduan urean beste lehoi bat, erbi bat ahotik zilintzan, ikusi zuen. Harriturik gelditu zen eta bortizki kexatu ere.

– Hortxe dago, hortxe! Ez da oihanean bi nagusiren tokirik. Lehoi hau hil behar dut!

35 Su eta gar jarri zen gure lehoia. Erbia bazter batean utzi zuen. Bere **etsaia garbitu** nahiz, urean ikusten zuen lehoiari lepora jauzi egin zion. Baina putzu hura oso **sakona** zen eta hantxe hil zen lehoia, itorik.

40 Hori jakin zutenean, alegeratu ziren oihaneko beste animalia guziak eta handik aitzina bakean eta uros bizi izan ziren.

arrunt: guztiz.

etsaia garbitu: etsaia,hil.

sakona: barna.


Elkar argitaletxeko *Zipristin 2* liburutik egokitua.

**1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT**

- Zein da animalien nagusia ?
- Zer erabaki zuten animaliek ?
- Zergatik erabaki zuten hori ?
- Zer gezur asmatzen du erbiak ?
- Zer ikusi zuen putzuan lehoiak ?
- Zure ustez nor ezarri zuten ondotik animalien nagusi ?

**2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA**

► **Putzua, oihana, harpea.** Animalia bakoitzari bere egoitza emaitzazu. Taula kopia eta animalien izenak idatz itzazu.



hartza	erbia
ximinoa	igela
krokodiloa	otsoa

► Hutsuneetan animalien izen hauek ezar.

behia	gatua	marrazoa
lehoia	urtxintxa	
.....	etxeko animalia da.	
.....	oihaneko animalia da.	
.....	itsasoko animalia da.	
.....	baserriko animalia da.	
.....	Afrikako animalia da.	

► **dut, du** edo **ditut, ditu** baliatuz, hutsuneak bete itzazu.

*Nik hiru goxoki jan ..... Amak bixkotxa egin ..... Ene kanikak Anttonek galdu .....  
Gure gatuak hiru sagu harrapatu ..... Andonik zaku bat erosi .... Xabierrek jostailu  
anitz eskuratu .....*